

## **ARRIZABALAGA ETA ETXANIZ, SOFRITUTA BAINA FINALERA**

**Gaur eguerdian Zornotzako ZELAIETA pilotalekuan Pradera eta Isasmendi menderatu dituzte (30-24) ordu t'erdiko finalerdi borrokatu batean**

Nesken Gomazko 'mpb' Paleta Zirkuituak gaur erabaki du hurrengo igandeko finalisten erabateko nortasuna. N.Martin eta Saez ligatxuan taldeburu izateagatik sailkatuak zeuden eta beraiei gaur Arrizabalaga eta Etxaniz batu zaizkie.

Zornotzan, Gernikako aurrelaria eta Etxebarriako atzelaria ziren faborito eta, kostata bada ere, garaipena lortu dute partidu oso luze batean.

Lau pilotariek asko jokatu dute gaur goizean Zelaieta pilotalekuan baina ezer ez arriskatu izanak lehia asko luzatu du. Arrizabalaga eta Etxaniz aurreratu dira lehen tantuetan atzelari arabarraren huts batzu tarteko baina honek bere maila eman duenean gauzak asko estutu dira. Pradera eta Isasmendi 4-8 aurreratu dira eta bizkaitar bikoia sendo jarri da orduan. Biak indartsuago sentituta, atzean apurtu nahi izan dute partidua baina Isasmendi-ren bertsio onenarekin egin dute topo.

Arabarrak asko eutsi du eta Praderaren laguntzaz azken unerarte aukerak mantendu dituzte (22-23). Azken hamarkada, nekea tarteko, urdinek eginiko huts batzuekin apurtu da finalerdia. Gorriek esperotako baino gehiago kostaturako lehia aurrera atera dute eta hurrengo igandeko finalean izango dira.

## **ARRIZABALAGA Y ETXANIZ SUFREN MUCHO PERO ALCANZAN LA FINAL**

**Este mediodía han superado en el frontón de Zornotza a Pradera e Isasmendi (30-24) tras hora y media de partido semifinal**

Este mediodía se ha compuesto definitivamente la final del Circuito PGF del Consejo Mundial en el frontón Zelaieta de Zornotza. N.Martin y Saez, ya finalistas tras concluir líderes del ranking en la liguilla, han conocido a sus rivales que no son otras que Arrizabalaga y Etxaniz.

Ambas eran favoritas ante Pradera e Isasmendi y los pronósticos se han cumplido. De todos modos, ha sido un duelo muy duro y largo.

Las cuatro protagonistas han jugado mucho pero lo pocos riesgos planteados por ambas duplas han eternizado la semifinal.

Pradera e Isasmendi se han adelantado 4-8 y sus rivales han optado por jugar con más seriedad y dureza hacia los cuadros largos dejando para otro partido las florituras. Ahí se han topado con la mejor versión de Ane Isasmendi que ha sujetado mucho y ello ha complicado sobremanera el triunfo de Olatz y Leire. Pradera también ha apoyado con decoro a su compañera y hasta el último tramo han contado con opciones de entrar en la final. No ha podido ser y la favoritas estarán en la final.